

DOLOMITAK

PARADISUA ALPEEN

ITZALEAN

Dolomitak, bost probintzia eta hiru eskualdetan hedatzen den mendilerroan, mendi zoragarriak, ibar berde eta sakonak eta herri xarmagarriak aurki ditzakegu. Egitura geologiko bertikalen paradisu honetan, hiru mila metrotik gorako altuera duten 18 tontor daude eta, mendi-orratz hauen magaletan, herri, landare eta animalia mota ugari. Makina bat aukera daude mendiarekin erabateko lotura duten kirolak praktikara eramateko: mendizaletasuna, eskalada, eskia, trekkingak, ferrata bideak eta abar. Mendi hauek eratzen duten paregabeko arkitekturan lehen aldiz murgildu gara, seguruenik ezagutzenak diren ibilbideak burutuz, baina ziur gaude, berandu baino lehen, bertan utzi ditugun bestelako ingurunez gozatzera itzuliko garela.

Tre Cime di Lavaredoko hiru tontorrak. Paterno tontorretik ikuspegia

TESTU ETA ARGAZKIAK



Ane Fernandez Barrado
(Donostia, 1993)

Diseinu industriala eta mekanika ingeniartzetan graduatua. Korrika, mendia eta oro har, natura du gustuko. Mendi lasterketetan zaletua.


Iñigo Gurrutxaga Arruti
(Donostia, 1992)

Zuzenbidean graduatua, hirigintza arloan jardunean. Kirolari amorratua, mendiko jardueren zale, lasterketetan ohikoa; korrikalari eta mendizalea.



CANAZEI - PIZ BOÉ

Dolomiten barnealdean geratzen den herri txiki baina berezi honek, mundu mailako mendi lasterketa ikusgarri bat antolatzen du urtero uztailearen erdialdean. Hala, Dolomithsrún lasterketa honen ibilbidea osatzea izan da gure asmoa mendi ikusgarri hauekin genuen lehen kontaktuan. Herriko plazatik bertatik hasi dugu ibilaldia. Egurrez eta lore koloretsuz osatutako etxeen artean doan kalean gora laster utzi dugu herria atzean. Neguan eski pista izugarriak izan behar diren bideetatik egin dugu aurrera, gure ibilbideak errepide eta ibaia gainditzeko egurrezko zubi oso zabalak erabiliz. Hasierako aldapa malkartsu horiekin segituan hartu dugu altura, inguruko mendietatik bista kendu ezinik ibiltzea eskertu dugu, gure eski pista zabalak eta bide ertzean dauden elur kanoiek uda partean ikusgarritasun mu-



rritza baitute. Hala ere, ibilbide luze hauetan zehar inor ez ibiltzeak eta, bakar bakarrik joateak ere baditu bere abantailak, guk, adibidez, bide erdian gertutik azeri bat ikusteko aukera eduki dugu.

Ikusgarria da harrizko pareta bertikal horietan dagoen zuloa

Baina lasaitasun honek ez digu egun osoan iraun, lehenengo jendetzak Passo Pordoin aurkitu ditugu, 2900 metro ingurura eramango dituen teleferikoaren zain. Guk aurrera egin dugu oinez, berriro ere bakarrik geratuz, baina oraingoan gora begiratuta gure lehen helburua ikusgai daukagu, bukatzen ez diren sigi-saga luze batzuen amaieran: Forcella Pordoi. Piriniotan ibilitakoek segituan hartuko liokete antza Brecha de Rolandekin. Ikusgarria da harrizko pareta bertikal horietan dagoen zuloa, haran batetik bestera zeharkatzea ahalbidetzen gaituena. Eta, zer esanik ez, atzera begiratuz gero, Dolomitetako erregina deritzoten Marmolada bere osotasunean ikusteko aukera, inguruko mendiek paisaia eder hau zapuzteko ausardia eduki ez zutela ere pentsa dezakegu.

Behin puntu honetara iritsita, lehen aldiz eduki dugu aukera ibilbideko puntu garaiena den Piz Boé tontorra ikusteko. Laurehun bat metroko desnibela gainditu behar izan dugu, orain bai teleferikoan igotako jendearekin batera. Hemen bai antzeman dugu Dolomitetan gaudela, harri zurizko bideetan zehar, arroka handiz inguratutik, ilargian gaudela ere pentsa liteke. Tontorrean, Forcella Pordoi pasoa


bezalaxe, mendi-aterbe bat aurkitu dugu, Dolomitetako beste mendi askoren antzera, geldialdi bat egiteko toki berezi askoa. Hemendik aurrerako ibilbidea, ezin izan dugu lasterketak jarraitzen duena burutu, eguraldia dela eta atzera berriz joaneko bidetik egin baitugu.

LAGO DI FEDAIA - MARMOLADA

Piz Boérekin gure Dolomitetako lehen harremana eduki ondoren, bigarren egun honetan harriztar hauekin eduki genezakeen zalantza oro desagertu zaigu. Benetan ikusgarria den ibilbidea da, goiz goizetik kotxea lakuan uzten duzun momentutik, bailara honetako glaziar handiena gurutzatuz, Lehen Mundu Gerrako ferrata bidean gora tontorreko aterpera iristen zaren momentu arte.

Goizeko zortziak izateko minutu batzuk falta direla, Fedaiak laku ondoan dagoen parkinean zain dago jendea. Motxilak materialez betetik, lakutik Pian dei Fiacconi mendi-aterbera eramango dituen teleaulkiak (binaka eta zutik joatekoa) bere atea ireki zain daudela, guk behetik ekin diogu ibilbideari bakar bakarrik. Teleaulkiak hasierako muinoa gainditzeko lagunduko die, baina gero, guk hartutako ibilbidea iristeko maldan behera jo beharko dute. Hala, lakutik berde-berdea dagoen muinoa sigi-saga batzuekin igo dugu 606 ibilbidea jarraituz. Lehendabiziko beroaldia. Gainera iritsi eta, arnasa hartzeko atzera begiratzean, Fedaiak laku bere osotasunean ikusteko aukera izan dugu, eta haratago begiratuta, lainoek errespetatzen badute, aurreko eguneko Piz Boé tontorra eta Sassolungoren punta zorrotzak ere ikus litezke. Hemendik, sasiordean heldu gara glaziarraren beheko puntura. Europako glaziar handiene-





taokoa izan arren, azken datuen arabera 25-30 urteko bizi itzaropena besterik ez du. Aukera aprobetxatuz, kranpoiak jarri eta pioleta hartuz ekin diogu gure bideari glaziarrean gora. Alde honetatik ez da ikusten honen handitasuna eta, zertxobait eskuin aldera eginez, glaziarra atzean utzi dugu, orain bai ferrata bide baten bitartez pareta bertikal batzuk igotzen hasteko.

Gailurrean mendi-aterbe txiki bat, kanpoan egoteko bere terraza eta guzti

Banan-bana joan beharreko ibilbidea izanik, lehen ilarak harrapatu ditugu, baina erritmo onean iritsi garenez gutxi batzuk dauzkagu aurretik; atzera begiratuta, ordea, glaziarrean gora datozenen ilara luzea antzeman dugu inurrien gisara. Ferratan lotzen garen lehendabiziko aldia da, hasierako zalantzak segituan desagertu zaizkigu bideaz izugarri gozateraino. Burdinazko eskailerek horma bertikalean lerro zuzen bat marratuz ahalbidetzen digute beste era batean, eskalatzailerik onenentzat bakarrik gordea dagoen pribilegio honetaz gozatzeko. Lehen Mundu Gerran "alpiniek" -Italiako infanteriako soldaduak- eraikitako bide estrategiko hauek gurutzatu ditugu Marmolada edo Punta Penia bezala ezagutzen den tontorrera iristeko, eta ez, haien antzera, gure etsaiak ezustean harrapatzeko. Garai hartako sokak altzairuzko kablez ordezkatu dira, era berean, burdinazko eskailerak eta metalezko mailak aurreko egurrezko egiturak ordezkatu dituzte, Europako lehen ferrata hauek zaharberrituz.

Uda parte izaki, tontorrean ez dago elurrik, kranpoiak berriro jarri beharrik gabe iritsi gara bertara. 3343 metroko Punta Penia, gailurre-riako tontorrik altuena, eta nola ez, Piz Boén bezalaxe, gailurrean mendi-aterbe txiki bat, kanpoan egoteko bere terraza eta guzti. Salda beroaren usaia dago bertan, eguraldi okerrago batekin zalantza izpirik gabe hartuko genukeen horietakoa, baina eguraldia lagun,

bertako bizkotxo -panettonne- zati bat probatzearekin konformatu gara.

Tontorreko ikusmiraz liluraturik, pixkanaka sartzen ari den behe-lainoak behera jaisteko gomendatzen digu berandu baino lehen. Glaziarrean zati motz bat gainditu behar da lehendabizi, ferrata bide txiki baten laguntzaz Marmoladako mingain zurira heltzeko. Askok igoera glaziarretik egiten dutenez ez dugu biderean zalantzarik izango, pitzadurak erraz ekidinez gertu igaro arren. Ikusgarria da benetan eguzkiaren izpiekin sortzen duten kolore urdin argia. Behin glaziarra atzean utzita, eta kranpoiak azkeneko motxilan gordeta, bide argirik ikusi gabe, Rifugio Ghiacciaio Marmolada bistara edukitzeak lagundu digu harri arteko ibilbidea osatzeko. Bertatik, pare bat kilometroko jaitsiera besterik ez zaigu falta kotxera heltzeko.

TRE CIME DI LAVAREDO-RI ITZULIA

Dolomitei buruz hitz egiten dugutenean beti datorkigu hiru harritar handiren irudia gogora, hainbat aldizkaritako argazkietan edo Italiako Giroa telebistan jarraitzean erakusten dizkiguten irudiak gogoraraziz. Ilusio berezia egiten zigan mendi honen inguruko itzulia egiteak, beraz urruti egon arren goizeko lauetan kotxea hartu eta, bi ordu errepidean igaro ondoren, Auronzo aterbearen aparkalera heldu gara. Azken mendatea igotzeko ordainleku bat igaro behar da, 23 bat euroko

Marmolada glaziarrean behera. Rifugio Ghiacciaio eta Lago di Fedaià





Tre Cime di Lavaredoko hiru tontorrak

bidesaria utziz, guk ordea ez dugu horren beharrik izan, goiz ibiltzearen onuretako bat ordainlekua irekita edukitzea baitzen gure harridurarako. Ferrata luze bat egiteko asmatan gindoazenez, gure erritmoan aritzeko gogoz, goizeko seiak eta laurdenetan ekin diogu ibilbideari eguzkia irtetearekin batera.

Ibilbidea zirkularra izanik, zentzu batera edo beste egiteak berdin duela pentsa daiteke kasu gehienetan, baina mendiaren zailtasuna areagotu ahala, aldats handiena dagoen tartean igotzea izaten da gomendagarriena, gerora jaitsiera errazagoa izateko. Gure kasuan, bi zentzuak antzekoak izanda, Paterno mendiko ferrata gertuen daukan ibilbidea egitea erabaki dugu, goiz irtenda, ferrata osoa bakarrik egiteko gogoz. Izan ere, aztertutako aldizkari eta web orrialde gehienek kontrako zentzua gomendatzen zuten.

Jendez gainezka imajinatzen genuen leku horretan bakar bakarrik egotea oso une berezia da

Hiru tontor hauen atzealdetik hasten da ibilbidea, familian egin daitekeen zirkular erreza eta polit bat osatzen duen pista hartu dugu. Segituan agertu da gure bistan Lavaredo aterbea eta bertara jaitsi gabe, pixkanaka gorantz jarraitu dugu lehen muinora irteteko. Momentu honetan, orain arteko ibilbidea utzi behar

izan dugu Paterno mendia igotzeko. Ferrata motz batzuk igaro behar izan ditugu, eta tunel batzuk gurutzatuz, ezinezkoa egin zaigu atzera ez begiratzea, bertatik hasi baikara Tre Cime di Lavaredo tontorrek bere osotasunean antzematen. Gora goazen heinean, bailararen beste alde ikusteko aukera izan dugu zenbait unetan, Caresko ibilbidea gogorazaziko digun amildegi batean zehar. Gailurra, Himalaiako tontorren antzera, koloretako banderak apaintzen dute budismoaren bost elementuak irudikatuz. Oso momentu berezia da, jendez gainezka imajinatzen genuen leku horretan bakar bakarrik egotea. Eguraldia lagun, minutu batzuk igaro ditugu bertan, begi ninez ikusgai dugun hori oroimenean ondo gordez; badakigu bai, eguneroko errutinan zein pozgarri diren halako sentimenduak berreskuratzea.

Ikusteko gauza gehiago ditugunez, berriro ekin diogu martxari. Oraingoan ferrata aldapa behera egin behar izan dugu, ez da batere zaila, baina gora datorren jende askorekin gurutzatu ezker, nahi baino luzeagoa izan daiteke itxaronaldia. Hala, inor gerturatu aurretik egin dugu jaitsiera osoa, zenbait momentutan kopetako argia piztuz Lehen Mundu Gerran egindako pasabideak zeharkatzeko. Jaitsierak Locatelli aterbean bertan utzi gaitu, geldialdi azkar bat egin ondoren, zirkularretik aldendu gara Torre Toblin mendia igotzeko asmoz. Paterno mendia tunel eta pasabideek ikusgarri egiten zuten bezala, azken honek ferraten zailtasun handiagoak egiten du interesgarri.

Ez da maila teknikorik behar, baina bertan ikusi dugun bezala, bertigoa duen norbaitek gaizki pasa dezake igo beharreko eskailera batzuetan. Tontor honek igoerako eta jaitsierako bideak markatuak dauzka, denek zentzu berean egin dezaten eta hala ilarak saihestuz. Abiatutako bide beretik itzuli gara Locatellira.

Terraza ederra dauka, Lavaredoko hiru tontorren panoramika aurrez aurre gozatzeko. Hauen oinetan ageri da gure itzulerako pista, penaz, dagoeneko gure egin dugun "trecime" alde batera utzi dugu zirkularra guztiz osatzeko. Erdibidean, azkeneko aterbea igaro dugu, Malga Langalm.

